

HUHEZIKo ikasleek Goiena Telebistaren instalazioak erabiliko dituzte errealizazioan trebatzeko

2008/01/28

Mondragon Unibertsitatearen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak, **HUHEZIK**, eta Goiena Komunikazio Zerbitzuek hitzarmen bat sinatu dute, eta horren bitartez, HUHEZIn **ikus-entzunezko Komunikazioa** ikasten ari diren **4. mailako ikasleek** Goiena Telebistaren platoa eta azpiegitura erabiliko dituzte, errealizazioan trebatzeko.

Idoia Astigarraga irakaslearen begiradapean, otsailaren 1etik maiatzaren 23ra bitartean, IKOko ikasleek **14 ostiralez** erabiliko dituzte Goiena Telebistaren platoa eta errealizazio gela. Guztira **42 eskola ordu** izango dira, errealizazio teknikak ikasteko.

Hitzarmen hau **2007-2008 ikasturterako** da printzipioz, baina alde biek horrela erabakiz gero, berritzeko aukera dago.

